

Amatasunaren eta indarkeria matxistaren arteko harreman dikotomikoa: indarkeria matxistaren biktimak artatzeko zerbitzu baten kasua

Olatz Esnaola Hernández

Donostiako Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua
olatzesnaola@opendeusto.es

Indarkeria matxistaren eta amatasunaren arteko harreman dikotomikoak indarkeria bizi izanak amatasunean eraginak ekartzen dituen moduan amatasunak indarkeria bizipenean ere eragina duela esan nahi du. Hau da, indarkeriak amatasunean ondorioak ekartzen dituen moduan, amatasunak indarkeriari aurre egiteko estrategiak ekarri ditzake. Azterlan kualitatibo hau Donostiako Indarkeria Matxistaren Biktimen Arreta Zerbitzuan egin da, bederatzi emakumeri eta hiru profesionali egindako elkarrizketa sakon erdi-egituratu bidez, amatasunarekin lotutako esperientziak ikusarazteko. Emaitzek azpimarratzen dute arreta integralagoa eta pertsonalizatuagoa behar dela, amen eta seme-alaben arteko harremanen ikuspegia kontuan hartuta, esku-hartzeen kalitatea hobetzeko. Amaitzeko, azterlan honek indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen artean amatasunaren berezitasunak aitortzearen garrantzia nabarmentzen du, esku-hartze optimizatuagoa lortze aldera.

Gako-hitzak:

Indarkeria matxista, genero indarkeria, amatasuna, ondorioak, jardunbide egokiak.

La relación dicotómica entre la violencia machista y la maternidad significa que, de la misma manera que haber vivido la violencia influye en la maternidad, la maternidad también influye en la vivencia de la violencia. Es decir, igual que la violencia acarrea consecuencias en la maternidad, la maternidad puede facilitar estrategias para combatirla. Este estudio cualitativo se ha realizado en el Servicio de Atención a Víctimas de Violencia Machista de San Sebastián a través de entrevistas en profundidad semiestructuradas a nueve mujeres y tres profesionales para visibilizar experiencias relacionadas con la maternidad. Los resultados subrayan la necesidad de una atención más integral y personalizada, que tenga en cuenta la perspectiva de las relaciones maternofiliales, para mejorar la calidad de las intervenciones. Para finalizar, este estudio destaca la importancia del reconocimiento de las peculiaridades de la maternidad entre las mujeres víctimas de violencia machista para lograr una intervención más optimizada.

Palabras clave:

Violencia machista, violencia de género, maternidad, habilidades maternas, consecuencias, buenas prácticas.

1. Sarrera eta justifikazioa

Artikulu hau Gizarte Laneko Gradu amaierako lan batetik sorturikoa da, Donostiako Indarkeria Matxistaren Biktiman Artatzeko zerbitzuan (IMBAZ) praktikak egin bitartean sorturiko ideia batetik abiatu zena. Esku-hartze zuzenean egonik eta emakumeen testigantzak entzutean, hauen gehiengoak seme-alabak dituela eta haiek emakumeek laguntza eskatzeko ezinbestekoak izaten direla ikusi izan dut. Izan ere, emakumeak zerbitzura lehen aldiz etortzen direnean, askotan haien seme-alaben kezkatik eskatzen dute laguntza.

Hau da, seme-alabak babesteko beharretik, haien burua babesteko laguntza eskaera inplizitu bat egon zitekeela pentsatu nuen. Hortaz, emakume hauentzako haien amatasuna indarkeria prozesuan erabakigarria izaten dela ondorioztatu nuen. Era berean, indarkeria matxista jasan izanak emakumeen bizitzako arlo guztietan eraginak dituen modura, haien ama rolean ere eraginak dituelakoan, interesgarria iruditu zitzaizkidan emakumeek honen inguruan duten ikuspegia jasotzea, batez ere indarkeria bizitzaren ari diren momentuan zein behin haien erasotzaileez aldentuta daudenean, haien amatasunaren inguruan zalantzan jartzeari egin behar izaten baitiete aurre.

Ondorioz, profesionalak esku-hartze espezializatuagoak egiteak indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin lan egitean onurak ekarriko zitzaizkeela pentsatuz, horri buruzko ikerketa bat burutu nuen, artikulu honetan laburbilduko dena. Hortaz, gaia sakonean aztertzea eta amatasunak emakume hauentzat duen garrantzia ulertzea ezinbestekoa iruditu zitzaizkidan, batez ere profesional bezala arreta eman behar zaion arlo bat delako.

Beraz, artikulu hau ideia horretatik abiatutako ikerketari buruz joango da, gai honetan erreferente diren autoreen marko teoriko batekin hasiko dena. Ondoren, artikulu honetarako iturri den ikerketa lanaren metodologia azalduko da, honen helburuak adieraziz. Hortaz, analisi empirikoaren laburpenak helburu horiek hartuko ditu ildo nagusi. Bukatzeko, honekin guztiarekin gaiarekiko ondorio eta hausnarketak jasotzen dira.

2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzat amatasunak zer esan nahi du?

2.1. Ama izatea emakume izateko identitate bezala

Askotariko autoreek jasotzen dute amatasuna emakumeen identitatearen elementu gakoak dela eta are gehiago, gizonaren boterea mantentzeko eta emakumeen ahultasun sentimenduak atxikitzeko balio duela, hau da, emakumeen ama funtzioa genero ezberdintasunak mantentzeko tresna bezala jokatzeko duela (Lapadat, 2021). Bertatik abiatuta, amatasuna ere emakumei indarkeria gauzatzeko beste bide

bat bezala ere badela interpretatu daiteke. Hortaz, emakumeen alderdi horretan ere ondorioak sortzen dituela. Horregatik, arestian aipatutakotik abiatuz, ama izateak zer esan nahi duenari buruz jardungo da artikuluan, emakume hauen amatasuna bere osotasunean ulertzeko.

Indarkeria jasaten duten emakume askorentzat ama izatea emakume izatearen nortasun eta bizi-proiektuarekin bat dator. Hala ere, amatasuna era desberdinetara bizi duten emakumeak daude, badira sufrimendutik eta kulpatik bizi duten emakumeak, baina baita babesa eman nahi duten eta haien seme-alabei bizi izan duten egoera orekatu nahi duten emakumeak ere (Lapadat, 2021).

Hortaz, sistema patriarkalak inposatutako femeninoaren idealak emakumeen garapena rol sozial nagusi batera murrizten du, hau da, ama zaintzailearen rolera eta hau onartuta haien bizitzako alderdi batzuk alde batera utzi beharko dituzte, hala nola, harreman pertsonal eta sozialak. Hain zuzen, ama rola ongi betetzeari atxikita dauden ezaugarriak ez baitatzat sozializatzen diren emakumeekin. Beraz, emakume batzuk haien burua sakrifikatu duten emakume eta ama bezala ikusten dira, gizonak, seme-alabak zein ingurukoak zaintzeko beharrarekin, zaintza rol horri eutsiz (Ríos, 2014).

Gainera, amatasuna idealizatu izanak gizarteko eta emakumeen pertzepzioaren eta errealitatearen artean desberdintasunak sortuko ditu, eta ondorioz emakumei antsietatea, kulpasentimendua, autoestimua baxua edo frustrazioa sor diezaike, batez ere ama onak direla sentitzen ez duten emakumei (Peled eta Gil, 2011). Ondorio horiek guztiak indarkeria matxistak berez dakarrenari gehitzen zaizkiola hartu behar da kontuan.

Laburbilduz, emakumeen nortasuna amaren beharrek lotzen dela esan daiteke, emakumeen egitekoaren barne dagoena. Hau da, amatasuna emakume identitatearen adierazpen gisa ager daiteke eta amaren rola galtzearen arriskuak emakumei haren existentziari zentzua galtzea ekar dezake. Ondorioz, haien beharren eta gizartean inposatzen diren amatasunaren inguruko exigentzien arteko oreka baten bila aritzen dira (Agudelo *et al.*, 2016).

Hortaz, emakumeen autopertzepzioa amatasunarekin eta honen idealizazioarekin lotuta dagoela ondorioztatu daiteke eta are gehiago, honetan oinarrituz eraikitako nortasuna gizarteko estereotipoen, irudi idealizatuen eta sozializazio prozesuak indartzen duela (Plaza Aleu, 2012). Horregatik, emakume hauek haien amatasuna nola hautematen duten aztertzea ezinbestekoa da.

2.2. Nola hautematen dute indarkeria jasan duten emakumeek haien amatasuna?

Esan bezala, amatasuna emakumeen nortasun eta bizi-proiektu bezala ulertzen da, baina honetaz gain,

garrantzitsua da indarkeria jasan duten emakumeek haien amatasuna nola hautematen duten aztertzea. Are gehiago, indarkeria jasan izanaren inguruan egiten duten hausnarketa jasotzea.

Oro har, emakumeek ama rolak haien bizitzetan duen garrantzia azpimarratzen dute, haien diskurtsoetan seme-alabak lehenesten dituzte eta haiengatik egin behar dutena azpimarratzen. Gainera, seme-alaben zaintzaile nagusi edota kasu askotan bakar bezala ulertzen dute haien burua, haien hezkuntza, zaintza eta maitasuna ematearen erantzule. Hots, emakume hauen helburu nagusia umeen beharretara dago zuzenduta, haien beharrak zentzu guztietan asebeteta izan ditzaten, hau da, fisikoki, emozionalki eta hezkuntzari dagokionez (Peled eta Gil, 2011).

Emakume hauek haien amatasuna haien bizitzaren ardatz bezala ikusten dute eta horren aurrean, seme-alabak babestearen beharra azpimarratzen dute, besteak beste, bikoteko istiluak edo emakumea jasaten ari den zailtasun ekonomikoak. Hau da, seme-alabentzako indarkeriarik gabeko ingurune bat sortu nahi dute, hots, indarkeriaren eraginak alde batera utzi nahi dituzte, haien ama rolean eragin ez dezan, izan ere, emakumeetan ama funtzionalak izatearen nahia gailentzen da (Peled eta Gil, 2011).

Testuinguru honetan, emakumeek indarkeriaren eragina txikiagotzen saiatzen dira, batez ere ama bezala funtzionatzeko eran eta haien min fisiko edota emozionalean. Orokorrean, emakumeek haien seme-alabek sentitzen ari diren mina lehenesten dute, haien mina nabaria ez izaten saiatzen dira, maiz haien depresioa, antsietatea edota beldurra ezkutatzuz eta zorientasuna erakutsiz, egoerari aurre egiteko estrategia gisa (Peled eta Gil, 2011).

Ildo beretik, Kellyk (2009) ere emakumeen amatasunaren alderdia garrantzitsuena bezala definitzen du, edozein erabaki hartu aurretik kontuan hartzen dutena. Autore honen esanetan, emakumeek beraien egunerokotasuneko zailtasunei aurre egiten diete, baita haien seme-alaben osasunaz eta eskolako garapenaz arduratu ere.

Hau guztia indarkeria matxistaren testuinguruan ulertuta, garrantzitsua da honek amatasunean eraginak dituen aztertzea.

2.3. Indarkeria matxistak amatasunean eraginak sortzen al ditu?

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeek ondorio bikoitzak jasaten dituzte, batetik, haien emakume rolean eragina duelako eta bestetik, ama rolean ondorioak ekartzen dituelako.

Indarkeriak emakumeen ama rolean eraginik izan ez duela dioten emakumeak dauden arren, gehiengoak nabarmendu egiten du egoera horrek eragin negatiboa izan duela ama gisa duten rolean. Adibidez, seme-alabekin igarotako denbora eta energia murriztu

behar izan dutela diote, beldurraren eta haserrearen ondorioz. Era berean, batzuek amatasunean eragin positiboa izan dutela nabarmentzen dute, hau da, enpatia eta seme-alabak zaintzeko edo babesteko gogoia areagotu izana aipatzen dute, baita ama on gisa jarduteko eta haien gaitasunak hobetzeko gogoia ere izaguirre eta Calvete (2014) autoreek jasotzen dutenez.

Hala ere, Lapadatek (2021) indarkeria matxista bizi izanak emakumeengan eta familiarengan askotariko zailtasunak ekartzen dituela dio. Seme-alabak hezteko erantzukizunean, batez ere gizonek eragiten duten desbalorizazioagatik eta emakumeei egiaztatena kentzen dietelako, hezkuntza-trebetasunak iraintzen dituztelaren ondorioz eta hortaz, emakumeak arauak eta mugak ezartzeko zailtasunak aurkitzen dituzte.

Emakumeak etengabeko alerta-egoeran daude, beldurra eta larritasuna dute eta nekaturik sentitzen dira. Ondorioz, aurrera egiteko zailtasunak sentitzen dituzte eta are gehiago, presio sozialak eragindako egoera emozional hori ez da amatasun positiboa garatzeko bideratzaileena. Horregatik, Plaza Aleuk (2012) emakume batzuek zaintza-sistema garatzeko zailtasunak dituztela adierazten du, seme-alaben premiak babesteko eta horiei erantzuteko. Ondorioz, ezin dituzte beharrezko zaintza jarrerak garatu, indarkeriak ekarri dizkien kalteen ondorioz, baita haien haurtzaroko istorio traumatikoengatik ere, hala nola, abusuzko edo indarkeriazko egoerak.

Are gehiago, esan daiteke emakumeen ama rola gizonek haien aurka joateko eta kritikatzeko gai bezala erabiltzen dutela eta seme-alaben manipulazioa erabiltzea ere gerta daiteke. Hala, emakumearen ama gaitasunak iraintzen dituzte, ama funtzioak gutxietsiz edo emakumeei kalte egingo dioten debekuak jarritz (Peled eta Gil, 2011).

Erasotzaileek emakumea etengabe zalantzan jartzeak bere buruaz duen irudia hondatzen du eta hortaz hori ama denean, bere ama-gaitasunari buruzko irudia ere hondatzen du. Hala nola, gaitasun pertsonalak, harreman-gaitasunak eta hezkuntza-gaitasunak gutxiesten dituztenez, amek etengabe jartzen dituzte beren jarduerak zalantzan eta ezin dute hezkuntza-funtzioetan agintea gauzatu (Plaza Aleu eta Cantera, 2015). Hots, erasotzaileak ezeztatu egiten du amak familia-testuinguruan duen boterea, gutxietsi egiten baitu bere rola garrantzia. Ondorioz, seme-alabengan eragiten du, baliorik gabeko papera dela eta errespetatu beharrik ez dagoela pentsa dezaten.

Muturreko kasuetan, seme-alabek amarekiko duten irudi hori haien kontra joan daiteke, seme-alabek gauzatzen duten gurasoekiko indarkeria moduan, indarkeria fisiko, hitzezko edo psikologiko moduan eman daitekeena. Horrelako kasuak indarkeriaren biktimia izatetik biktimario izatera pasatzen diren seme-alabak izan daitezke. Egeak (2014) dioenez, urteetan ikasitako intolerantzia eta agresibitateak familiako pertsona guztietan eragin psikologikoak ekartzen ditu, indarkeriaren biktimia diren seme-alabak gurasoekiko eta batez ere amekiko indarkeria erabiltzen hasi

daitezke. Hala, haurrek eta nerabeek ama erruduntzat jotzen edo haien agintearen kontrako jokabideak errepikatzen dituzte, erasotzaileak amari tratatu txarrak ematen jarraitzeko erabiltzen dituelako. Hori elementu gehigarri bihurtzen da, indarkeria matxista istorioa duten amen eta seme-alaben arteko harreman-zailtasunari erantsita (Plaza Aleu eta Cantera, 2015).

Indarkeria matxistak emakumeen amatasuna zailtzen duen testuingurua sortzen du, batez ere erasotzaileek indarkeria gauzatzeko estrategia bezala amatasunari eta ama eta seme-alaben arteko harremanei erasotzen edo kritikatzten dutelako. Hala nola, emakumeek diotenez beren bikotekideek indarkeria erabiltzeko mehatxua egin dute eta haurren aurkako indarkeria erabiltzen dute emakumeei eragiteko eta amatasuna ahultzeko modu gisa (Lapierre, 2010). Bestetik, Plaza Aleu (2012) dio ama diren emakume hauek minduta sentitzen direla, seme alabak batzuetan aitaren aldeko iritziak adierazteagatik. Gainera, seme-alaben eta aitaren arteko harremana kudeatzeko zailtasunak nabarmentzen dira, ezin baitituzte egoera hauetan babestu edota aita transmititzen dizkien diskurtsoei aurre egin.

Emakumeek sentitzen duten babesgabetasun hori areagotu egiten doa, sufritzen duten indarkeriagatik haien amatasunarekiko erantzukizuna areagotu zaiela sentitzen baitute, baina aldi berean, haurren instrumentalizazioaren eraginez emakumeek haien amatasunarekiko kontrola galdu dutela sentitzen dute, Lapierrek jasotzen duen moduan (2010).

Ondorioz, isolamendua dela eta emakume batzuei gehiago kosta dakieke seme-alaben garapena suspertzea eta egoera horren aurrean, batzuetan, haurrak gaitzesteko jokabideak ager daitezke. Ikusi denez, emakumeek zenbait babes-neurri ezarri ohi dituzte seme-alabak indarkeriaren ondorioetatik ahalik eta gehien babesteko, haien ama onaren rola ahalik eta ondoen betetzen saiatu nahi dutelako eta horrela, tratatu txarren ondorioak haurren zaintza-lanetatik bereizten saiatzen dira (Lizana, 2015).

Hortaz, baliteke indarkeria matxistaren ondorioz emakumeek haien seme-alaben beharrei eta eskaerei nahi duten moduan erantzuteko zailtasunak adieraztea, baita erruduntasun-sentimendua ere, ama txarrak direla sentitzen dutelako (Plaza Aleu, 2012). Horrek emakumeengan haien egoera partekatze beldurra ekar dezake edo egoerari aurre egiteko gai ez izateagatik lotsa-sentimendua, ondorioz emakumearen isolamendua indartu daitekeelarik.

Testuinguru honetan guztian garrantzitsua da azpimarratzea indarkeria matxistak dituen eraginak ikusita, normala dela arlo hauetan eragin negatiboak ekartzea, hala nola, adin txikikoekin atxikimenduan, batez ere, amak beldurra, haserrea eta ahultasuna sentitzen dutelako (Lizana, 2015). Ildo beretik, Plaza Aleu eta Canterak (2015) berretsi dute indarkeriako egoerak bizi dituzten amak beldurra eta alerta jasaten ari direla eta ezinbestean, hori transmititzen diezaieketela seme-alabei.

Ondorio horiek hazkuntza-estiloan islatzen dira eta hauek aldaketa handia izaten dute indarkeria testuingurutik atera ondoren, izan ere, amak erasotzailearekiko harremanean, seme-alabak babesteko rol bat hartzen du bere gain, hazkuntza-funtzioa alde batera utzita, eta hori zailtasuna izan daiteke erasotzailearengandik banandu ondoren. Batzuetan, bizi izandako egoerari aurre egiteko eta gainditzeko zailtasunak seme-alabekiko lotura eragingo du eta horiek amari berregiten lagunduko diote (Contreras *et al.*, 2015). Hortaz, ama izateak haien indarkeria prozesutik ateratzen lagundu diezaieke.

Hala ere, azpimarratu behar da hezkuntza-trebetasunak ez direla murriztu emakumeek beren ama-rola modu ezinhobean betetzeko gaitasunik ez dutelako, baizik eta bizi izandako indarkeriaren ondorioengatik. Hortaz, indarkeriaren ondorioak bi eragin nagusi ditu, batetik, emakume biktima gisa biziako indarkeria gainditzeko beharrean, eta, bestetik, haurrak babestearen garrantzian, haien gaitasun pertsonal, harreman- eta hezkuntza-gaitasunen balioa galtzeak eta izen ona galtzeak etengabe zailtzen jartzen baitizkie amaren funtzioa betetzeko gaitasunak (Plaza Aleu eta Cantera, 2015).

Seme-alaba adingabeak dituzten emakumeen kasuan, hauek tratatu txarrak nola bizi izan dituzten eta egoera familiar horrek nola eragiten dietenari buruzko kezka ere nabarmentzekoa da. Erasotzaileak seme-alabekin duen edota izango duen jokabidearekiko beldurra edo adingabeek aita ikusi beharrarekiko kezka dira aipatzekoena Combarro eta besteen iritziz (2014).

Baina, indarkeria matxistak emakumearengan ekar dezakeen kalteak, hasiera batean, egoerak seme-alabengan duen eraginaz ez ohartzera eraman dezake. Gerora ohartzen direnean, haurrek eta nerabeek ere sufritu dutela eta indarkeriak haren eta seme-alaben arteko harremanean eragina izan duela ezagutzean, ama onak izan ez direla sentitzen dute (Plaza Aleu eta Cantera, 2015). Hau da, baieztatu egiten da familia batean indarkeria matxista gauzatzen den egoera baten ondoren, amaren figura eta seme-alabak kaltetu egiten direla. Hau da, ama eta seme-alaben arteko lotura aldatu egiten da, amatasun-funtzioak hartzeko ezintasun-sentimenduagatik eta egoera hauetan amek jasaten duten estres handiagatik (Lapadat, 2021). Hortaz, esan daiteke emakumeek zailtasunak izaten dituztela seme-alaben mundu emozionalera heltzeko baina Peled eta Gilek (2011) baieztatu egiten dute indarkeriatik atera izanak haien ama rolean hobekuntzak ekarri dituela, gaitasun emozionalak hobetu dituztelako.

Laburbilduz, indarkeria matxistak gizarteko adierazpenetan eta jarreretan eragina duenez, ama diren emakumeetan ere eragina dauka eta ondorioz, seme-alaben eta amen arteko harremanetan zailtasunak ekar ditzake. Hortaz, emakumeekin lan egitea ezinbestekoa izango da, haien amatasuna lantzeko eta seme-alabekiko harremanetan agertzen diren zailtasunei erantzun egoki bat emateko (Plaza Aleu eta Cantera, 2015). Hala ere, emakumeek

indarkeriaren eraginez haien ama rola betetzeko zailtasunak aurkitzeaz gain, bestelako hainbat oztopo aurki ditzakete, hala nola, gizartean haienganako dituen imajinarioa da aipatzekoa, amatasun gaitasunak zailtasunak jartzen dituzten jarrerak baitaude zabaldua. Honegatik guztiagatik, baieztatu daiteke emakumeentzat espero den feminitate-eredu idealak emakume izatea ama izatearekin lotu dezaketela eta amatasuna emakume izate hutsaren oinarri bezala hartu dezaketela.

Esaten denez, indarkeria jasan duten emakumeek zailtasunak izaten dituzte haien ama rolari modu egokian erantzuteko, batez ere seme-alabekin harremanak eraikitze eta indarkeriak haien ama rolean eragin ez dezan saihesteko (Peled eta Gil, 2011). Dena den, erasotzaileek hainbat estrategia erabiltzen dituzte amatasunari erasotzeko, baina Lapierren ustez (2010) estrategia horiek emakumeak seme-alaben arduradun gisa planteatzen dituen testuinguru sozial batean gertatzen direla ulertu behar da.

Hortaz eta lehen atal honekin bukatzeko, esan daiteke amatasuna gizarteko mito eta estereotipoek ezartzen dituzten zailtasunek eragiten dutela eta honek emakumeenganako eskaera maila areagotzen duela, batez ere ama gisa dituzten funtzioekiko eta familiako ardurekiko. Amaren funtzioen idealizazioa sortzen da eta emakumeek gainerakoen igurikimenean arabera jokatzera bultzatuta ikusten dira, esparru horren arduradun gisa ikusten direlarik eta haien garapena ama zaintzailera mugatuz. Gainera, aipatu beharra dago ama horiek hainbat esperientzia traumatiko jasaten dituztela eta haien bizitzako eremu desberdinetan normaltasunez funtzionatzen jarraitzea eragozten dieten ondorioak uzten dizkietela, batez ere indarkeria matxistaren testuinguruan (Lizana, 2015).

3. Metodologia

Artikulu honek ardatz duen ikerketa metodologia kualitatiboan oinarrituz egin da, bizi esperientziak

eta subjektuen ikuspegia kontuan hartuz. Erabilitako tresnei dagokienez, sakonean egindako elkarrizketak izan dira nagusi, 45 minutu eta 2 ordu bitartekoak, baita arestian azaldutako autoreen bibliografia ere. Elkarrizketak egiterako orduan, izaera erdi egituratua erabili da, emakumeei nahi ahala gai desberdinen inguruan askatasuna emateko.

Laginari dagokionez, nahita aukeratutako lagin bat erabili da, batez ere indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuan ezagututako emakumeak izan direlako. Haien egoera eta gaia kontuan harturik, berreskuratze-prozesu bat osatuta zuten eta harremana eten duten emakumeak aukeratu dira, izan ere, funtsezkoa baloratu da elkarrizketek parte-hartzaileak ez berbiktimizatzea. Hortaz, ezaugarri berezi batzuk dituzten emakumeak aukeratzea erabaki da, hau da, indarkeria gailendu duten, haien seme-alabek haien prozesuan garrantzi berezia izan duten emakumeak. Bestetik, euskara edota gaztelania zekiten emakumeak ziren, hizkuntzaren arabera elkarrizketa gidoia bi hizkuntzetan zegoelarik. Aukeratutako emakumeei proposamena eskaini ostean, haiekin hitzordua adostu eta baimen informatua sinaturik, elkarrizketak grabatu ziren, hala ondoren transkribatu ahal izateko eta bertatik analisisa egin ahal izateko. Analisisari dagokionez, transkribapenak egin ostean kategorizazioa eskuz egin eta metodo induktiboan egin zela aipatu behar da.

Lagina osatzen duten emakumeei dagokienez, 26 urte eta 57 urte bitarteko indarkeria matxista jasan duten emakumeak dira, askotariko jaioterrikoak, batik bat Euskal Herrikoak, baina baita Honduras, Mexiko, Peru, Ekuador eta Marokokoak ere. Emakume guztiak, horietako bi izan ezik, Donostiako Indarkeria Matxistako Biktimak Artatzeko Zerbitzuan artatuak eta beste biak Mariren Alabak Elkartetik bideratuta izan dira, Hernaniko Gizarte Zerbitzuan artatuak izan direnak. Seme-alaben adinei dagokienez, 0 urtetatik 22 urte bitartekoak izan dira, amekin soilik edota bi gurasoekin bizi zirenak.

1. koadroa. Elkarrizketatutako emakumeen datuak				
Kodea	Adina (urteak)	Iraupena (oo:mm)	Jaioterria	Haur kopurua (eta adinak)
E1	26	01:00	Honduras	Seme bat (6 urte)
E2	43	01:15	Euskal Herria	Alaba bat (4 urte)
E3	39	00:45	Euskal Herria	Hiru seme-alaba* (10, 8 eta 0 urte)
E4	45	01:15	Euskal Herria	Seme bat (9 urte)
E5	57	01:01	Mexiko	3 seme-alaba (17, 16 eta 15 urte)
E6	39	01:05	Peru	2 seme (9 eta 5 urte)
E7	39	01:05	Ekuador	Alaba bat (14 urte)
E8	45	01:20	Maroko	Alaba bat (2 urte)
E9	54	02:00	Euskal Herria	Lau seme-alaba (22, 20, 18 eta 16 urte)

* Horietako bi erasotzailearekin.

Iturria: egileak egina

Bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretan praktika onak proposatzeko, ezinbestekotzat hartu da profesionaleri ere elkarriketak egitea, zentzu honetan arlo profesionaletik egin daitezkeen praktika onak definitzeko eta zein erronka ditugun identifikatzeko asmoarekin. Guztira, zerbitzuan lan egiten duten 3 profesional elkarriketatuta ziren, bataz beste 45 minutuko iraupenarekin, funtsean, bi gizarte langile eta psikologo bat, denak emakumeak.

2. koadroa. Elkarriketatutako profesionalen datuak		
Kodea	Iraupena (oo:mm)	Lanbidea
P1	00:50	Gizarte langilea
P2	00:33	Gizarte langilea
P3	00:50	Psikologoa

Iturria: egileak egina.

Gauzak horrela, ikerketaren helburu orokorra indarkeria matxistaren eta amatasunaren arteko elkarreragina nolakoa den aztertzea da. Berariazko helburuak ondorengoak proposatu dira:

1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeek haien amatasunaren inguruan dituzten pertzepzioak ezagutu.
2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeek beraien amatasunarekiko egon daitezkeen sinesmenen inguruan duten ikuspegia aztertu.
3. Familia-eremuan indarkeria matxista bizi izanagatik emakumeek identifikatzen dituzten amatasunaren inguruko ondorio nagusiak ezagutu.
4. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek indarkeriaren prozesuak amatasunean izan dituen ondorioei aurre egiteko estrategiak definitu.
5. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen amatasun arloari erantzuna emateko Gizarte Lanetik jardunbide gokiak proposatu.

4. Analisi enpirikoa

4.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeek haien amatasunaren inguruan dituzten pertzepzioak

Haien amatasunaren inguruko pertzepzioa zein den ezagutzeko, kontuan hartu behar da emakume askok haurdunaldian zehar indarkeria jasan izan dutela eta hortaz, indarkeriak haien amatasunaren hasieratik baldintzatu duela hauen pertzepzioa. Emakumeek diotenez eta Bolaños *et al.* (2018) autoreek diotena erreferentziatzat hartuz, esan daiteke haurdunaldia arrisku bereziko etapa dela eta bertan hasi edota areagotu daitezkeela erasoak:

Indarkeriaren lehen erasoak nire lehen alabaren oso haurdun nengoenen hasi ziren. (E9)

Hortaz, emakumeek haurdunaldian zehar indarkeria fisikoa zein psikologikoa jasan dezaketela baieztatu egiten da eta honek ondorio negatiboak eragiten dituela amengan zein umeengan, amatasuneko lehen hilabeteetan zailtasunak ekarri, Izaguirre eta Calveterekin bat eginez (2014):

Nire haurdunaldia disfrutatu ez nuela konturatu nintzen, beldurrez beterikoa izan zen, egunero nituen jipoiak eta horregatik ez nuen umearekin loturarik sortu nahi, jipoiengatik umea galduko nuela uste nuelako. (E7)

Honen aurrean, haurdunalditik indarkeria sufritu izanak emakumeengan kulpa sentimendua eragiten du, haien testigantzetan maiz ateratzen den elementua izanik. Ondorengo testigantza hauetan jasotzen denez eta Lapadaten (2021) iritzitik, amatasuna sufrimendutik eta kulpatik bizitzea ohikoa da, seme-alabei babesa emateko gaitasuna ez izatearen kulpa atxikitzen baitiete haien buruari:

Gutziz baliogabetuta sentitzen zara ama bezala ezin duzulako ezer egin, zure erruz sufritzen ari da, ez naizelako harremana uzteko gai. (E7)

Errudun sentitzen zara. Nik hortik atera nahi nuen, baina oso zaila da seme-alabak dituzunean, egunero etortzen baita zure seme-alaben iruzkinetan. (E3)

Seme alabengan ere eragina izan dezakeela ikustea kulpatik, arduratik eta kezkatik bizitzen dute emakumeek. (P1)

Halaber, amatasuna gizartean idealizatuta egoteak emakumeek sentitzen duten kulpa sentimendu hori areagotzen dute, izan ere, emakumeek haien pertzepzioak gizartean dauden ideia idealizatuarekin alderatzean, ama "onak" ez direla sentitu dezakete eta hala, haiengan antsietatea, kulpa sentimendua eta frustrazioa areagotu (Peled eta Gil, 2011):

Nire semea jaio zenean gogorra zen, maite ez nuela sentitzen nuelako, ez nuen maitasun hori sentitzen, sufritzen ari nintzen guztiagatik. Banekien maite nuela eta banekien ardura bat nuela baina ez nuen sentitzen esaten duten maitasun hori. (E1)

Era berean, seme-alabek haien amei babestu ez diela gogoraratzeak emakumeei ere min ematen die, emakume honek dioten moduan, kulpa sentimendua gehiago areagotuz:

Haurrek ere eman diedan aita nolakoa den aurpegiratzen didate. (E3)

Hala, seme-alabek ama erruduntzat jo dezakete eta gainera, amaren agintearen kontrako jokabideak errepikatu. Hots, honek amaren eta seme-alaben arteko harreman zailtasunak ekarri ditzake, amarentzako elementu mingarri gehigarri bat dena (Plaza Aleu eta Cantera, 2015). Edonola ere, ama izatea emakumeetan oso errotuta dagoen sentimendu bat

da, ama izatea haien identitatearen parte sentitzen dutelarik. Gainera, amatasuna emakumeen bizitzako proiektu bezala sentitzen dute (Lapadat, 2021):

Amatasuna oso gaztetatik desio bat zen, nik ama ona izan nahi nuen, azkenean haurdun geratzea lortu nuen. Desira betea izan zen, amatasuna betetako ametsa izan baitzen. (E4)

Emakumeen identitatearen zati garrantzitsu bat bezala agertzen da amatasuna elkarrizketa guztietan, hauen autopertzepzioa amatasunarekin lotzen dute, hau da, nortasunaren parte (Agudelo *et al.*, 2016). Era berean, amatasunaren idealizazioarekin lotuta, gizarteko estereotipoek emakumea hartzen dute familiaren arduraren eredu nagusitzat eta beraz, amatasuna arduratik bizi dezakete askok (Plaza Aleu, 2012):

Amatasuna ardura super handi bat da. (E5)

Niretzako amatasuna hori zen: haurra zaintzea, babestea eta bere onena bilatzea. (E1)

Hitz hauetatik abiatuta, esan daiteke emakume hauek haien seme-alaben zaintzaile nagusi edo bakar bezala ikusten direla eta haien ongizatea bermatzeko umeen beharrak asebeteta egotea da haien lehentasuna, behar fisiko eta emozionalei erantzunez (Peled eta Gil, 2011). Honekin loturik dauden elementuak dira genero rola, izan ere, sistema patriarkalak ezartzen dituen rola edota idealek emakumearen rola zaintzailearenera mugatzen dute.

Indarkeria prozesuari dagokionez, emakumeek garrantzi handia eman izan diote seme-alabak izateari, izan ere, haien zorionaren arduradun gisa ikusten dituzte. Baina bestetik, aitaren ardurarekiko etsipena adierazten dute Kellyk (2009) ere jasotzen duen moduan:

Sentsazio gazi-gozoa geratu zait. Izan ere, prozesu hori guztia hain zen polita... baina aitaren portaerarekiko sentsazio gazi-gozoa gelditu zait. (E4)

Orokorrean, amatasuna laguntza eskatzearen arrazoi nagusia izan da, haien ama rola indarkeria prozesutik ateratzeko arrazoi izanik eta emakume guztiek aipaturiko elementua delarik:

Ama izateak berebiziko garrantzia du, ziur asko, ama izan ez banintz, denbora gehiago luzatuko zatekeen, hau da, uste dut, azkenean, zure semearen ongizaterik handiena bilatzeko beharragatik egiten dela, haurrak eramaten zaitu laguntza eskatzera. (E4)

Eta alaba jaio zenean berari eta niri zin egin nion nire bizitzarekin babestuko nuela. (E8)

Ondorioz, baieztatu daiteke ama izateak paper oso garrantzitsua duela emakume haien bizitza eta indarkeria istorioan, profesional honek dioen bezala, emakumeen ideiarekin bat eginez:

Amaren funtzioak paper garrantzitsua izan baitezakete adintxikikoen babesaren arloan. Izan ere, uste dut hori dela askotan laguntza eskatzen dutenaren arrazoi, seme-alabak babesteko laguntza eske etortzen direla. Laguntza eskatzera asko mugiarazten ditu. (P2)

Dena den, laguntza eskatzeko arrazoi izan daitekeen moduan, amatasuna egoera horretatik ez ateratzeko arrazoi bezala ere ulertzen dute emakumeek. Izan ere, horrek kontraesana sortzen die, beldurra eta zalantza eraginez:

Amatasunak bultzatu ninduen hau konpontzera, baina ulertzen dut kasu gehienetan amatasunak berak atxikitzen zaituela, zure seme-alaben aita delako. Azkenean, zu familiaren kontzeptura eusten zara eta familia hori suntsituko duzula pentsatzen duzu. Orduan, ulertzen dut seme-alabarik ez duzunean askoz errazagoa dela bertatik ateratzea. Prozesu horretan familiari ainguraketa oso tinkoa da, baina erabaki hori hartzen duzunean seme-alabak dira bertatik ateratzera motibatzen zaituena. (E4)

Hala, emakumeek seme-alaben ongizatea bilatzen duten heinean familia ideia bati eutsi nahi izaten diote eta familia horrekin haustea beldurra ematen die. Baina behin erabakia hartu nahi dutenean, indarkeria testuingurura lotzen ditu seme-alabak izatea:

Erasotzailearekin seme-alaba bat izateak honekiko lotura mantentzea esan nahi du, alaba izateak neri asko agobiatu dit, bere aitarekin ezin moztu izanaren arrazoi izan da. (E2)

Haurrak hortik ateratzen laguntzen dizun bezala, kosta ere egiten zaizu hor dagoelako. (E1)

Alegia, amatasuna indarkeria gauzatzeko eta genero ezberdintasunak mantentzeko tresna bezala erabili dezakete erasotzaileek, emakumeek haien seme-alabek aita bat izateak harremanera lotzen dituelako, hau da, familia inposizio batera (Lapadat, 2021). Eta beraz, harremana seme-alabengatik ez haustea eragin dezake:

Ama gisa ia deuseztatuta sentitzen zara, ezin duzulako ezer egin, zure erruz sufritzen ari da, ez naizelako gai erasotzailea uzteko. (E7)

Hori gizarteko sinesmenekin lotu daiteke, izan ere, emakume hauek haien erasotzailearekin harremana moztearen zailtasun nagusia hauen haurrei aita bat ematearen beharrean datza:

Ama diren heinean, indarkeriatik ateratzeko ezer egin ezin dezaketela sentitzen dute, ama izateak familiaren ideia bati eta aita garrantzitsua den eraikuntza bati lotuta mantentzen ditu. Emakumea erabat deuseztatuta eta ikusezin geratzen da. (P3)

Askotan, harremanaren haustearen beldurra izateak seme-alabei min emozionala gutxitzeko aukera bezala ikusten dutelako hartzen dute emakumeek

harremanean jarraitzeko erabakia, berarekiko izan ditzaketen askotariko menpekotasunaz gain (Kelly, 2009). Hots, nahasmen egoera horrek errealitatea ulertzea eragozten dion egoera psikologiko batera eraman dezake emakumea Cuervo eta Martínezek diotenez (2015). Gainera, ulertu egin behar da emakume hauen nortasuna deuseztatu egiten zaiela urteetan zehar pairatu behar izan duten indarkeria psikologikoagatik eta horrek erabaki hartzeko zailtasunak ekar ditzakeela (Yugueros, 2015).

Funtsean, arestian aipatu den aita bat izatearen beharraren ideia gizarteko sinesmenekin lotu daiteke, hau da, ikerketa lan honen bigarren helburuarekin. Helburu honi dagokionez, indarkeria matxista jasan duten amatasunarekiko dauden sinesmenak zeintzuk diren jaso nahi izan da.

4.2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeek beraien amatasunarekiko egon daitezkeen sinesmenen inguruan duten ikuspegia.

Esan bezala, familia batean aita figura izatearen garrantzia gizarte edo kultura sinesmen batekin bat dator eta emakumeek beraiek aita izatearen garrantzia hori gizarteko sinesmenekin lotzen dute. Gainera, ama gazteak izan diren emakumeen kasuan, gizartean ezartzen diren arauak haien ama gaitasunak zalantzan jartzea ekartzen diela aipatzen dute:

Idealekin zerikusia duen gai bat da, familia bat izatean pentsatzen nuen, familia ideal horren harira horren araberrako planak egiten dituzu. (E6)

Abortatzen banuen, okerreza izango zen. Ezin nuen abortatu. Nire familiak hil egingo ninduen, epaitu egingo zidaten, baita Jainkoaren begietara ere. (E1)

Ikusten denez, emakumeen sozializazio-prozesuan hainbat eragilek nola jokatu behar duten ezartzen diete, batez ere gizarte-eredu nagusietan oinarrituz. Eragile horien artean, Plaza Aleuk (2012) familia, eskola edota erlijioa aipatzen ditu. Hortaz, eragile hauetatik emakumeak zalantzan jartzen dituzten sinesmenak zabaldu daitezke, baita amatasunaren inguruan ere. Baina behin haurrak izanda ere, amatasuna aurrera eramateko moduan zalantzan jartzen dietela ikusi da, hain zuzen, estigmatik:

Gizarteak ikusiko duena da begira ze gaizki egiten ditun, haurrak ez zaizkio inporta, ama txarra da, estigma horretatik. (P1)

Kulturari eta gizarteari dagokienez, bada ezartzen den rol bat, sinesmen-sistema bat, non ama hain garrantzitsua dela eta akatsik ezin duela izan eman dezakeen. Amak prest egon behar du eta zaindu egin behar du, oso obra erromantiko batez inguratuta egon behar du denak. Baina, rol horrekin identifikatzen saiatzea porrot-posizioaren aurrean jartzea ere bada. Porrotaren edo erruaren sentsazioa oso indartsua izan ohi da, baita gizartearen aldetik ere. Nire ustez,

gizarte-erakuntzan mezuek asko eragiten dute era negatiboan. (P3)

Hori dela eta, emakume hauek haien beharrei eta gizartean inposatzen diren exijentzien arteko oreka bat bilatzen saiatzen dira (Agudelo *et al.*, 2016). Dena den, amatasunarekiko gizartearen aldetik askotariko exijentziak jasan dituzte, batez ere ama gisa dituzten funtzioekiko. Ondorioz, Lizanak (2015) dio emakumeak haien haurren arduradun ikusten diren heinean, gizarteko igurikimenean arabera jokatzera behartuta ikusten direla, epaituta eta zalantzan jarriak sentitzen direlako:

Lagunduta sentitu beharrean epaituta sentitu nintzen, nire familiaren aldetik, kaleko jendeagatik, epaituta sentitu nintzen, lagundu edo entzun beharrean. (E1)

Orain arte ikusi denez, emakumeen nortasuna haien amatasunaren arabera eraikitzen dute baina hori ulertzeko, horrekiko gizartean dagoen idealizazioa hartu beharko da kontuan, hortaz, nortasunak gizarteko estereotipoetan oinarria duela esan daiteke. Hala, emakumea haurren zaintzaile nagusi bezala ikusten da, haurren ongizatearen eredu eta ondorioz, familia "porrotaren" errudun. Ondorioz, emakumeetan eragin fisikoak edota emozionalak ekar ditzake honek guztiak, emakumeek gizartearen aldetik presio hori sentitzen dutelako (Plaza Aleu, 2012).

Gizartearen aldetik exijentzia horiek dauden moduan, arlo profesionalean ere badaudela sentitzen dute emakumeek eta hortik bosgarren helburuan jasoko diren praktika onen beharra ulertzen da. Zentzu honetan, emakumeek gizarteak zalantzan jartzen dituela sentitzen dute, bai ingurune hurbilak bai profesionalek, haien jarrerak zalantzak jartzen dituztelako (Lapadat, 2021).

Gizarte zerbitzuei dagokienez, emakumeen artean desberdintasun bat nabarmendu da, izan ere, horietako batzuk sistemarekiko konfiantza falta azpimarratzen dute. Nahiz eta gizarte-babeseko sarean laguntza eskatu duten, ama gisa zalantzan jarri dutela eta erruduntzat hartu dietela aipatzen dute, Lizana (2015) autoreak jasotzen duen bezala:

Gizarte zerbitzuak mehatxatzaile gisa sentitu ditut. (E1)

Ama bezala zalantzan jarri nautela sentitu dut leku guztietan. (E9)

Baieztaatu denez, biktima izan diren emakumeek jaso duten arretaren arabera gizarte zerbitzuekiko sortu duten lotura baldintzatu da (Benalcázar eta Damián, 2020), batzuetan adingabeekin harremana mantentzeko aukera kenduko diotenaren beldurra aipatuz (Lizana, 2015).

Bestetik, sistema judizialek batere babestuta sentitu direla adierazten dute beste batzuek eta batez ere, sistema honengatik indarkeria instituzionala aipatzen

dute, zentzu guztietan. Alegia, babes neurri falta, abokatuen aldetik arreta, proba psikosoziala, aitarekin bisitak mantentzea eta abar luze bat. Testuinguru judizialari dagokionez, emakumeek haien esperientzia negatiboak aipatu dituzte haien testigantzetan eta sistemaren aldetik, batez ere judizialek, tratatu txarrak jasan dituztela sentitzen eta adierazten dutelarik. Bodelónnek (2014) dienez, sistema bera emakumeak birbiktimizatzeko eragile bihurtu daiteke eta arrisku honi aurre egiteko, ezinbestekoak dira sistemak praktika onak bultzatzea:

Ni babesgabe sentitzen nintzen nire abokatuagatik, ez nekien zer egin eta ez zidan ezertan lagundu, ez zituen probak aurkeztu. Proba psikologikoan ere, psikosoziala, oso gogorra izan zen. (E6)

Gainera, baieztatzen den beste ideia bat dago, hain zuzen, erasotzailek banantzeak ez duela indarkeria bukatzen dela esan nahi (Lapadat, 2021). Izan ere, bisiten bitartez erasotzaileek indarkeria bikarioa gauzatu dezaketela esan daiteke:

Banantzearen ondoren indarkeria ez da bukatzen. Pertsona hauek segur asko eta gehienetan bisitak erabiltzen dituzte min egiteko. Askotan aita edo erasotzaileak adintxikikoak sartzen dituzte min egiteko joku honetan. (P2)

Laburbilduz eta indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko sareak aztertzen dituen Benalcázar eta Damiánen (2020) ikerketarekin bat eginez, ondorioztatu daiteke emakume gehienek ez dutela justizia eta babes sisteman konfiantzarik izan. Are gehiago, sistema hauetan hartu diren erabakiak emakumeari min egiteko beste modu bat bihurtu dira, horien artean, guraso-ahala:

Kurtso guztietan ditugu arazoak, aitek ez du ezer baimentzen. Adibidez, nire semearen aitek ez zuen baimentzen eta ni zoro bihurtzen nintzen, orduan, niri orduak, mina, diru kostu bat eta urduritasuna ekartzen dit. (E9)

Hala, erasotzaileek adingabeak erabiltzen dituzte emakumeei indarkeria egiteko modu gisa, emakumeetan estres maila areagotuz (Peled eta Gil, 2011). Aitzitik, guraso-ahala beraientzat lortu duten emakumeentzat lasaigarria izan da erasotzailearekiko lotura hori haustea eta justizia aldetik eman zaion babes hori eskertu egiten du. Honek adingabeen babesa dakar, baita emakumeentzako lasaitasuna ere (Combarro *et al.*, 2014):

Guraso-ahala eman zidaten eta nire bizitzako egunik zoriontsuena izan zen, epaitegian garrasika hasi nintzen, zoriontasunez. Hala ere ez pentsa lasai bizi zarenik, egunero torturatzen dut nire burua, nire alabak nire koinatuari aita deitzen diolako... (E8)

Hau da, arlo juridikotik emakumei eta adingabeei babesa eman behar zaiela ondorioztatzen da, izan ere, hauen kontrako neurriek sistemarekiko mesfidantza

dakarte, baita familia testuinguruan eragin negatiboak ere (Liébana, 2018):

Ama da haur haurrentzako erreferentzia seguruena eta babesgabetzen ari gara, haurren segurtasun figura bakarra ari baikara zalantzan jartzen. Haurrak babesgabetzen ari gara, aitaaren ustezko eskubide batengatik eta amaren ustezko instrumentalizazio batengatik, ez dagoena inongo informe batean argudiatua. (P3)

Arlo profesionalen, nire ustez, joera bat egon daiteke eremu batzuetan, adibidez, haurtzarotik, indarkeria ikusteko, baina ez hainbeste amari ondorioek eta nola eragin diezaioketen kontuan harturik, baizik emakumei aitarekiko erantzunkidetasunean parekatze bat eskatzen diete. Orduan, emakume horiek ez dira zainduta sentitzen, aita ere kontuan hartzen dutelako eta batzuetan berari espazio gehiago eman diezaiekete, ez dira babestuta ezta indartuta sentitzen beren ama-rolan. (P3)

Ildo honetatik, haurren arretara zuzendutako zerbitzuen begirada haurren babesera zuzenduta dagoenez, askotan emakumearen esku-hartzea bigarren maila batean gelditu daitekeela esan daiteke Lapierreren iritziz (2008). Ondorioz, indarkeria matxistak emakumeengan eta familia-eremuan eraginak ekartzen dituela baieztatzen da, gizarteko sinesmenek, justizia aldetik hartzen diren neurriek edota arlo profesionaleko esku-hartzeek eragina ere badutelarik.

4.3. Familia-eremuan indarkeria matxista bizi izanagatik emakumeek identifikatzen dituzten amatasunaren inguruko ondorio nagusiak

Honek guztiak emakumeengan ondorioak ekartzen ditu, indarkeria matxistak haien osasunean eragiten duen bezala. Ondorioen artean, depresioa, antsietatea, kulpasentimendua, damutzea, bere buruaz beste egiteko pentsamenduak, elikadura nahasmenduak, isolamendua, autoestimua baxua eta abar luze bat aipatzen dituzte emakumeek:

Gaizki zaudenean, deprimituta zaudenean, antsietate handiarekin zaude, eta, azkenean, haur bat ondo egoteko, amak ondo egon behar du. (E3)

Ondorioz, emakumeek ikasitako babesgabetasun bat garatzen dutela jasotzen dute Huangal eta Briceño bezalako autoreek (2018), haien amatasunean eta batez ere haien osasunean eraginez. Indarkeriak emakumeen osasunean eragina duen heinean, haien bizitzako alor guztietara eragiten die eta horien artean, seme-alabekin igarotzen duten energia edota denbora, hortaz, autoreek indarkeriak ama rolean eragin negatiboak ekarri ditzakeela diote (Izaguirre eta Calvete, 2014). Hala ere, badira amatasunean eragin positiboak nabarmentzen dituztenak ere, eragin horien artean, haurrak zaintzeko gogoia areagotzea eta ama on gisa jarduteko gogoia gehiago izatea Izaguirre eta Calvetek (2014) diotenez.

Haurrari zerbait gertatuko zitzaiola sentitzeak egin zidan maite nuela konturatzea eta hortik aurrera beragatik dena emango nuela konturatu nintzen. (E1)

Nire alaba Diputaziora joan zen eta bitartean nik tresnak garatzeko lanketa bat egin nuen, hor hasi zen ni ama bezala disfrutatzen eta nik alaba bezala tratatzen ikasi nuen, hor konturatu ginen hobera gindoazela eta amatasun tresnak garatu nituela. (E7)

Hortaz, emakumeen eta seme-alaben osasunean indarkeriak ekartzen dituen ondorioez gain, honek guztiak familia eremuan ondorioak ekartzen ditu. Adibidez, haurrak gehiegi babestearen beharra sentitzea azpimarratzen dute emakume askok. Horrela, emakumeak haien seme-alaben mina saihesteagatik, haien sentimenduak ezkututzen dituzte, haurren ongizatea lehenetsiz. Modu berean, babesteko behar horrek gehiegizko kezka eragin diela aipatzen dute emakumeek. Gainera, indarkeriarik gabeko guneak sustatu nahi dituzte beraientzat, hasiera batean bikote harremanean zeuden istiluak ezkutatzuz eta behin harremana bukatuta (Peled eta Gil, 2011), indarkeria jasatea bihurtzen baita emakumeen beldur nagusienetarikoa bat:

Nire alaba gehiegi babestea eragin dit, min egiten dit onartzeak baina berarekiko eta denarekiko beldurra daukat oraindik. (E8)

Edota adibidez, indarkeriak familia roletan aldaketak ekar ditzake, hala nola, adingabekoek zaintza rola bere gain hartzea, esate baterako:

Nire alabak nirekin ama rola hartu zuen, berak zaintzen ninduen. (E7)

Emakume batzuek zaintza garatzeko zailtasunak izan ditzaketela aipatu da, baina azpimarratu behar da beti ere bizi izan duten indarkeriaren ondorioz seme-alaben beharrak babesteko eta erantzuteko zailtasunak dituztela, zaintza-portaerak garatzeko eragozpenak dituztelako (Plaza Aleu, 2012). Eta ondorioz, familia eremuan ere honek ondorioak ekarriko dituela esan daiteke, izan ere eta Huangal eta Briceñok (2018) diotenez, ezkortasuna eta arazoak konpontzeko zailtasunak, tentsio emozionalei eta sintomei aurre egiteko zailtasunak, ikasitako babesgabetasuna eta abar ekarri ditzake:

Nik ezin nituen limiteak jarri errudun sentitzen nintzelako, arauak ezartzen nire alabari min gehiago egiten niola sentitzen nuelako. (E7)

Hau da, familia eremuan hezteko eta limiteak edo arauak jartzeko zailtasunak aurkitu ditzaketela dio Lapadatek (2021), gizonak urteetan emakumeei egin dizkieten desbalerizazioak haiengan eragin negatiboa ekarri duelako. Beraz, familia-eremuan limiteak jartzeko zailtasunak indarkeriaren ondorio direla baieztatzen da. Horrenbestez, indarkeriak amatasunaren inguruko askotariko beldurrak

sortu dizkie emakumeei, eta horien artean, erasotzailearekiko beldurra, seme-alabei zerbait gertatuko zaienaren ikara eta abar luze bat:

Oraindik beldur hori daukat eta nik egiten badet gustatzen ez zion zerbait? Orain askoz hobeto nago baina asko limitatzen dizu, beldurra dezu gauzak egitera. (E2)

Nire beldurra beraiei zerbait gertatzea da, bera gai ikusten dut. (E3)

Ikusten denez, emakumeak alerta-egoera batean daude etengabe, beldurra eta larritasuna adieraziz (Plaza Aleu, 2012). Aipaturiko beldur hau areagotu egiten da, Lapierreren (2010) dioenez, erasotzaileak indarkeria seme-alabekin erabiliko duela mehatxatzen duenean, emakumeari min egiteko tresna bezala erabiltzen duelarik. Indarkeria gauzatzeko modu honek emakumeengan beldurra sortzeaz gain, seme-alaben osasunean eragin negatiboak dakartzki (Ledesma, 2022):

Nire beldur handiena umea eramaten saiatzea da, mehatxu egin dit askotan min gehien egiten dizun lekuan emango dizut. (E4)

Mehatxatu egiten zidan haurra kentzearekin, horrek banantzeko zailtasunak jartzen zizkidan beldurra nuelako eta erabakia hartzea zailtzen zizkidaten mehatxuek. (E1)

Gainera, amatasuna emakumearen identitatearen adierazpena izanik, ama rola galtzearen arriskuak emakumeari haren bizitzaren zentzua galtzea ekar lezake, bere osasun mentalean eraginak ekarritik (Agudelo *et al.*, 2016). Esate baterako, elkarriketatua izan den emakume baten alaba Gipuzkoako Diputazioaren zaintzapean gelditu zen eta ama rol hori galtzeak bere bizitzaren dinamikan ondorioak ekarri zituela kontatzen du:

Ni kikiilduta nengoen, banekielako haurra kenduko zidatela. Nik ez nekien nire burua zaintzen... nahasmendu eta depresio bat garatu nuen. (E7)

Testuinguru honetan, emakume askok gizarte-zerbitzuek adingabeekin egoteko aukera kenduko diotenaren beldurra aipatzen dute (Lizana, 2015). Bestetik, familia testuinguruan ere beldurrak sortzen dira, hala nola, haurrek indarkeria beste testuinguruetan pairatzearen beldurra, edota haiek indarkeria gauzatzearena:

Nire seme-alabak dira nire beldur nagusia, ezin dute hau beraiek ere jasan. (E7)

Nik ez dut nahi nire semeak bera bezala izatea, indarkeria erabiltzea, niri horrela hitz egitea... (E5)

Familia eremuan indarkeriak dakarren beste eragin bat, indarkeria filioparentala izan liteke:

Ni errudun naizela sentitzen dute, beraiekin egoera oso gogorrak izan ditut. Orain dela gutxi horietako

bat oso agresibo jarri zen nirekin, oso mingarria izan zen niretzat. (E5)

Nire alabak bat-batean nire aurkako mezuak bidaltzen zizkidan zure erruagatik aita gabe gelditu zela esanez. (E7)

Kasu batzuetan, seme-alabak biktima sentitzen dira ama bezala eta hortaz, bi aldeen arteko harreman estua sortu daiteke. Baina beste batzuetan, bien arteko haustura sortu daiteke eta profesionalek esaten duten bezala, emakumeak haien seme-alaben indarkeriaren biktima izaten buka dezakete kasu batzuetan:

Nik uste dut haurrekin fusionatzen direla emakumeak, hauek zaindu eta babesteko biek bat egiten dutela, seme-alabak haien beharraren barruan sartzen dituzte. Fusionamendu hau nutritiboa izan daiteke lehen faseetan, hauraren lehen urtean adibidez, baina ondoren banaketa zaila izan daiteke. Zer gertatzen da? Bi pertsonak bat direnean ondoren banaketa ematen denean lehertu egin dezake, adibidez, nerabeak direnean. (P3)

Indarkeriak zalantzarik gabe eragin egiten du eta ez era osasuntsu batean, izan ere, emakume askok esaten dute iraganeko esperientziak berriro sentitzen eta bizitzen dituzte haien seme-alabengandik. (P2)

Laburbilduz, familia eremuan ondorioak nabariak eta askotarikoak dira. Baina honen aurrean, emakumeek egoera honi aurre egiteko askotariko estrategiak garatzen dituzte, zailtasun hauei aurre egiteko asmoarekin.

5. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek indarkeriaren prozesuak amatasunean izan dituen ondorioei aurre egiteko estrategiak.

Estrategien artean, garrantzi gehien izan duen elementua amatasuna bera izan da, aurrera jarraitzeko arrazoi nagusi izan dena eta emakume guztiak bat datozelarik:

Alabak bultzatu ninduen depresiotik ateratzera, berak motibatu ninduen, berak ez zuelako merezi gaixorik zegoen pertsona batekin bizitzea. Nire alabagatik egiten dut, nire buruaz beste egiteko gogoak kendu zitzaizkidan, nire alabarekin zoriontsu bizitzeko esperantza aurkitu nuen, beregatik eta beretzako, arrazoi bat aurkitu dut. (E7)

Nire alabak lagundu dit, nik ezin dut gaizki egon, indarrak atera ditut nire alabak nabaritu ez dezan, ni gaizki baldin banago bera ere gaizki egongo delako. (E8)

Nire semeak egin dit ni konturatzea inkontzienteki honek guztiak merezi duela etorkizun seguru

batengatik, nire semea izan da nire laguntza nagusia. (E4)

Ama izateak lagundu dit, nire alabak. Bera hor dago eta ama izatea hain polita da, neri horrek ematen dit indarra. (E2)

Amatasuna emakumeentzako lehentasun bezala agertzen da, hau da, bizitzaren ardatz eta babesteko ardura azpimarratzen dute, beste edozeren gainetik. Emakume hauen saiakera guztiak ama rolaekin lotuta agertzen dira, ama funtzionalak izatearen beharra lehenesten baitute, seme-alabentzako indarkeria gabeko ingurune bat bilatzera bultzatuz (Peled eta Gil, 2011). Horrenbestez eta ikerketa lan honen ideia nagusiarekin bat eginez, amatasuna bera emakumeentzako ahalduzko iturri izan ohi da, hauek zaintzeak bizirauteko indarra ematen dielako (Semaan *et al.*, 2013).

Gainera, seme-alabekiko lotura afektibo horiek gaitasun konpontzailea izaten dute eta harreman hori ihesbide bihurtzen da bai seme-alabentzat bai amarentzat, hau da, maitasuna eman eta jasotzeak egoerari aurre egitea errazten die (Lapadat, 2021). Horregatik, maiz errepikatzen den estrategia da haien minaz ez hitz egitea eta haurren beharrak lehenestea, amatasunagatik aurrera egin dutela onartuz eta ideia hau azpimarratuz (Peled eta Gil, 2011):

Asko disimulatzen saiatu naiz, ezkututzen saiatu, humorearen bitartez adibidez. (E4)

Bestetik, inguruko laguntza izan da emakumeei lagundu dien beste laguntza iturri bat, eta azpimarratu beharra dago emakumeak izan direla gehien bat. Hala nola, amak, arrebak, psikologoak eta lagunik onenak dira Benalcázar eta Damián (2020) autoreek aipatzen dituzten laguntza-sare garrantzitsuenak, elkarriketatuek esandakoagatik baieztatzen dena:

Nire semearen besotako amak lagundu dit prozesuan. (E1)

Nire lagunak lagundu didate oso era praktiko batean, bidean lagundu egin didate. (E4)

Beste alde batetik, emakumeak erresilientzia garatzen joan heinean haien nortasunean aldaketak etorri daitezke eta arazoei aurre egiteko beste modu batzuk bilatzen dituzte. Horien artean, autoreek sormenean eta espiritualtasunean garapena aitortzen dute (Fernández-Álvarez *et al.*, 2022), liburu bat idaztea izan daitekeena, adibidez. Gainera, lan bat izateak, haien egoera kontatzeak, idazteak eta erlijioak lagundu die, baita beste askotariko familia ereduak bilatzea edota egoera berdinean dauden emakumeei laguntzea:

Idazketak lagundu dit, nire istorioren liburu bat idaztea, baita lan bat izatea ere. Batez ere artearen bitartez nire barruak hustea. (E5)

Nik adibidez bilatu behar izan det inguruan familia ez dela aita edo ama bat, nire alabak ikusi du

beste familia eredu bat, ez dela estereotipoa. Estereotipoak ez diren kasuak aurkitzeak lagundu dit. Edo gure artean konektatzea. (E2)

Niri asko gustatzen zait emakumeak entzutea, lagundu ahal izateko. Horrek ere niri lagundu egiten dit. Emakumeei behar dutenetan laguntzea. (E8)

Banandu nintzenean nire erlijio askatasuna bizitzen hasi nintzen, nire burua ezagutzen eta bizitzaren beste ikuspegi bat izaten lagundu dit erlijioak. (E7)

Izan ere, Rosellek (2014) dioenez, talde baten parte izateak pertsonen talde sentimendua eta aitortpena ematen die, baita harreman berriak sortzeko aukera ere. Taldeetan elkar laguntzeak elkar ulertzea dakar eta bertatik pertsonen aldaketek ekitea lagundu dakieke. Hala, harreman mailan sortzen den erresilientzia ari gara, emakumeek haien sare soziala zabalduz eta beste emakume ahaldunen ereduak jarraituz, haien bizitzan garapen bat sortzen dute eta komunitate bateko kide sentitzeak lagundu egiten die (Fernández-Álvarez *et al.*, 2022).

Bestetik, erlijioa erabili dute babes emozionala jasotzeko iturri gisa, haien burua positiboki hautemateko eta haien irudi hobeago bat sortzen lagundu diena, hau da, autoestimuan eta indarkeriari aurre egiten lagunduz (Defaz, 2016). Ondorioz, askotako estrategiak garatzen dituzte eta hori azpimarratu nahi izan da, profesional honek dioten moduan:

Bizitzak bere zailtasunak dauzka, horri gehitzen badiogu amatasuna ardura, heziketa aldetik, osasuna, instrumentala reba, horri gehitzebaiou egotea pertsona bat dena boikoteatzen eta torpedeatzen iruitze zait supereoinak diala. (P1)

Azken finean, emakumeek haien bizitzako arlo desberdinetan erresilientzia garatzen dute, bai indibidualki, hala nola, nortasunean, baikortasunean edota eraginkortasunean (Fernández-Álvarez *et al.*, 2022). Honetan guztian, laguntza profesionalak paper garrantzitsu bat duela azpimarratzen dute, batez ere amatasunari aurre egiteko estrategiak garatzerakoan. Emakume honek dioenez, Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuan (IMBAZ) seme-alabekiko estrategiak lortzen lagundu ziotela dio:

IMBAZko profesionalak lagundu dit batez ere haurtzaroko gaietan. Tresnak garatzen lagundu dit, batez ere amatasun zailtasunei aurre egiteko, lehen ez nituen tresnak garatzen lagundu dit. (E3)

Gainera, kudeatzen diren laguntza psikologikoko profesionalak ere laguntzazkoak izan direla diote, nahiz eta gaia jorratzeko beste modu bat eta sesio gutxi direla aipatu:

Indarkeriaren kontzientzia lagundu zidan, berak esan zidan indarkeria fisikoaz gain psikologikoa ere pairatzen ari nintzela eta horretarako ni ez nintzen kontziente. (E6)

Psikologoa jarri zidanenean ondo, baina ikusi dudana da oso limitatua dala, jarraitu det luze baina nik ordaintzen nuelako. (E2)

Ikusi denez, laguntza profesionala beharrezkoa izan da amatasunari dagokion zailtasunen inguruko estrategia garatzeko baina horretarako, ezinbestekoa da arlo profesionalean jardunbide egokiak proposatzea, arreta laguntzazkoa izatea bermatzeko, beraz, horri helduko zaio azken helburu honetan.

6. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen amatasun arloari erantzuna emateko Gizarte Laneko jardunbide egokiak

Artikulu honetako analisi enpirikoa bosgarren helburu honekin bukatzen da, hain zuzen, arlo profesionaletik praktika onak jasotzen. Zentzu honi buruz galdetzerakoan, emakumeek programa espezializatuak ez izatearen inguruan hitz egiten dute, izan ere, amatasun programetan lantzen diren material eta egoerekin ez dira identifikaturik sentitzen eta hortaz, emakume hauek artatzen diren zerbitzu eta materialetan ulertuta sentitzea eta baliabideak izatea ezinbestekoa da praktika ona ziurtatzeko:

Ez nintzen identifikatuta sentitu, ez zen nire errealitatea eta ez nintzen materialetan islatuta sentitzen, ez nuen ezta indarkeria bizitzen ari nintzela kontatu, taldeko errealitateak oso bestelakoak zirelako. Gainera, nik eskatu nuen laguntza eta nire erasotzaileari programara gonbidatu zioten. (E6)

Hala, esku-hartzean zehar autoestimua, erruduntasun sentimenduak eta egoeraren ulermena landu beharko dira eta nola ez, ama funtzioetan ikuspegia jarri (Orjuela *et al.*, 2008). Honi esker, emakumeek tratatu oneko harremanak eraikitzea eta gaitasunak garatzea erraztuko zaie, ama funtzioetan lagunduz (Plaza Aleu, 2012). Eta noski, ezinbestekoa izango da prozesuak iraun bitarteko laguntza izatea.

Arretari dagokionez, profesionala bera ere baliabide bat dela diote profesionalek, arretaren garrantzia gailentzeko asmoarekin:

Baliabide funtzionatzen dute, gu bagea bat, dauzkagun beste horiek funtzionatzen ez dutenen gurea potentziatzea da. (P1)

Gure espazioan konfiatu behar dugu, erresilientzia errekursoak eman mina hobeto eramateko. Emakumeak dira haurrentzako erresilientzia faktore eta beraz, nik esku-hartzeari enfoke hori ematen diot. (P3)

Beraz, profesionalen aldetik babesa eta erresilientzia sustatu behar dira, ama rola seme-alaben ongizatean duen garrantzia ikusaraziz eta autorrealizazioa eta autoestimua indartuz (Combarro *et al.*, 2014).

Emakume askorentzako soilik hona etortzea eta espazio seguru hau izateak, lasaitzeko espazio bat kanpoan gertatzen ari zaiena kontatzeko, deskargatzeko eta askatzeko. (P2)

Praktika onak direla ziurtatzeko, espazioa bera zaintzea proposatzen du hurrengo profesionalak, Alonso eta Funesekin bat eginez (2009), espazioak goxotasuna eta gertutasuna transmititu behar duen heinean, batez ere harrera eta esku-hartze on bat egin nahi badugu:

Espazio fisikoa bera uste dut ez dela egokiena harrera on bat egiteko, espazio propio bat behar dute emakumeek, konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatuta dagoena. (P2)

Hala, errazagoa izango da esku-hartze hobe bat egitea, eta ondorioz, espazioa zaintzea aipatu beharreko beste jardunbide egoki bat litzateke. Behin hori kontuan hartuta, profesional gisa dagokiguna emakume hauei behar duten arreta ematea da:

Amei kontaketa laguntzea, haiek bizi dutena eta seme-alabak ikusgarritzea. Bestelako begirada hori ematen lagundu behar diegu, haurrek sufritu dutena ikusten eta ulertzen. Rebiktimizazio prozesua ekiditeko bere ama rolean ahalduntzen lagundu behar diegu, sentimenduak adierazten eta nola kolokatzen den aztertzen, alineantea edo instrumentalizadora begiradatik ikusten dutenen aurrean estrategia garatzen. (P3)

Hori bera azpimarratzen du Plaza Aleu autoreak (2012), emakumei haien bizitzako kontaketa laguntzea jartzen du balioan, indarkeriari eta aitaren figuraren inguruko diskurtsoa eraikitzen lagunduz eta hala, seme-alabei erantzunak emateko tresnak erraztuz. Indarkeriak emakumeen bizitzetan ekarri dituen ondorioak lantzeko espazioak emakumei haien bizitzako alor desberdinen inguruan hausnartzeko aukera eman behar die, emakume eta ama rola inguruan hausnartzeko, hain zuzen. Bertan, ama gaitasunak sustatu beharko lirateke eta praktika onak direla ziurtatzeko, esku-hartzean komunikazio afektiboa, emozioen kudeaketan laguntzea eta mugak jartzeko tresnak ematea izango litzateke egokiena.

Testuinguru honetan, enpatiazko eta ahalduntzeari zuzendutako esku-hartzeak sustatu behar ditugu, genero ikuspegi batetik eta emakumeak eta adingabeak kontuan harturik, eta noski, epaitu gabe (Peled eta Gil, 2011). Hots, haien ama funtzioaren inguruan hausnarketa bultzatzea, haien ama rola rekiko ondo sentiaraziz eta ondorioz, familia harreman osasuntsuak eraikiz. Bertan, adingabeak ikuspegi kontuan izatea proposatzen du Lapadat (2021) autoreak.

Bestetik, gure errekurtoei balioa ematea eta hauetan konfiantza izatea proposatzen dute profesionalak, beste programa edo errekurtoetara ebaluazio gabe bidaltzei arbuio eginez eta gainera, errekurtoen eskuragarritasunari balioa emanez.

Bestetik, amatasunaren inguruan dituzten zalantzei erantzuteko espazio espezializatuaren garrantzia ondorioztatzen duen ideia iristen gara, izan ere, arreta integral eta espezializatu batentzako emakumeak ulertuak sentituko diren espazioen aldarrikapena egiten dute:

Nire kasu konkreturako ditudan zailtasunentzako zerbait espezifikoa behar dut. (E3)

Nik uste dut indarkeria gainditu dugun pertsonok beldurrik gabe partekatu ahal izatea bertan dauden pertsonen laguntzeko eta, batez ere, aintzatesten laguntzeko ondo legokeela. (E6)

Iritzi bera partekatzen du IMBAZeko profesional batek eta gainera, bertan egon litezkeen profesionalak izendatzen ditu, hau da, gizarte-langilea, psikologia eta abokatua, emakumei arreta integral bat emateko helburuarekin:

Erreferentziazko figurak izatea: oinarritzkoak dira gizarte-langilea, psikologoa eta abokatua, eta informazio hori eskura izatea, ez dezagun egin behar milaka ekintza burokratiko. Nik uste dut hori oso garrantzitsua dela, lehenengo zati bat da biktimari laguntza eta euskarria ematea, bera eta haren seme-alabak indarkeria-egoeratik duintasunez atera ahal izateko, eta gero beste guztia etorriko da, baina lehen zati hori oso garrantzitsua da. Horretan asko dago egiteko, talde multiprofesionala behar dugu. Nire ustez, haurtzaroan, indarkeria eta gizarte-ekintza nola lantzen ditugun aztertu beharko litzateke, errebisioa egin, adingabeei eta haien gurasoei arreta emateko programa espezifiko batentzat. (P3)

Horrela, tratu txarrak jasan dituzten emakumei eta seme-alabei laguntzeko espazio propio bat sortzea garrantzitsua da, haien beharretara egokituta:

Guri eta adingabeei arreta emateko gune espezializatuak sortzea oinarritzkoa da, hemen indarkeriaren biktima diren ama asko artatzen ditugulako, baina uste dut adingabe horiei ere entzun behar zaiela eta baliozkoa egin behar dela adingabe horiek bikote-harremanari buruz adierazten dizutena. Garrantzitsua da haiekin lan bat egitea, ez dudala esaten hori egiten ez denik, baina uste dut espazio espezializatuagoa behar dela haientzat. Tratu txarrak jasan dituztenentzako laguntza psikologikoa eta tailer espezifikoak bideratzea. (E6)

Honekin guztiarekin esan daiteke indarkeria matxistari aurre egiteko politikak planteatzearen garrantzia azpimarratu behar dela, batez ere emakumeak eta adingabeak babestuko dituzten jardunbideak ziurtatzeko. Hala, emakumeentzako eta seme-alabentzako espazio propio bat proposatzen dute autoreak, amatasunari dagokion esku-hartze espezializazio bat emateko espazio konbinatu bat, hain zuzen (Contreras *et al.*, 2015). Espazio espezializatu hauetan amei eta seme-alabei arreta ez

zatikatu, errespetuzko eta integral bat emango zaie, amatasunari eta familia harremanei zuzenduta, beti ere genero ikuspegi bat kontuan izanik.

Horrela, errekonfigurazio prozesuan lagunduko dieten errekurtsioak sustatzea, hala nola, ama rolean haien bertsiorik onena bilatzeko tresnak eta emozioei arreta emateko espazioa seguru eta konfiantzazkoak proposatzen dituzte autoreek (Plaza Aleu eta Cantera, 2015).

Funtsean, Plaza Aleuren ikuspegitik (2007) amei emozioen kudeaketan, amatasun gaitasunetan eta ama rolean, hau da, hauen ahalduzkoan laguntzea izango litzateke praktika ona, baita adingabekoen beharrei erantzuten laguntzea ere eta kasu honetan, ezinbestekoa da genero ikuspegia kontuan hartzea.

7. Ondorioak

Artikulu honen helburu nagusia indarkeria matxista jasan izateak emakumeen amatasunean izan duen eragina aztertzea zen, batez ere haien testigantzei garrantzia emateko. Horretarako, eta metodologia kualitatiboaren bitartez, amatasunak beraientzako indarkeria prozesuan izan duen garrantzia nolakoa izan den erakutsi nahi izan da.

Hauen testigantzetan ikusi izan denez, haien indarkeria istorioa bizitzerako eta kontatzerako garaian ama izanak ezinbesteko garrantzia dauka. Hala nola, ama izatea izan da emakumeentzako laguntza eskatzeko arrazoi nagusia. Haien seme-alabekiko kezka adierazten dute emakumeek eta beraz, haien ongizatearengatik hasi daitezke laguntza eskatzen. Gainera, seme-alabak izateak aurrera ateratzeko arrazoi nagusi izan da emakumeentzat, indarkeriak ekarri dizkien ondorioei aurre egiteko, hain zuzen.

Ordea, amatasunak ere indarkeria harremanera lotzen zuen elementua izanik eta gizarteko familia ereduaren eraginaren ondorioz, emakumei indarkeria pairatzen duten harremana bukatzeko zalantza izaten dituzte, arrazoi berdinagatik, seme-alaben ongizateagatik haiek aita bat izatea nahi zutelako.

Hortaz eta artikulu honen izenburuari erreferentzia eginez, indarkeria bizi izanak emakumeen amatasunean eraginak ekartzen dituela ikusi da. Baina beste alde batetik, amatasunak indarkeria bizipenean ere eragina du, indarkeria aurre egiteko estrategiak garatzen baitituzte ama izateari esker. Horregatik, indarkeria matxistaren eta amatasunaren arteko harreman dikotomiko baten aurrean gaudela esan dezakegu, izan ere, indarkeriak amatasunean ondorioak ekartzen dituen moduan, amatasunak indarkeriari aurre egiteko estrategiak errazten ditu, amatasuna izanik bertatik ateratzeko arrazoi nagusia.

Beraz, amaren rola funtsezkoa da emakumeen eta seme-alaben ongizatea berreskuratzeko eta emakumeek haien seme-alabak babestu nahi dituzten arren, haien testigantzetan jasotzen den bezala, ama

hauek maiz epaituak izan ohi dira gizartearen aldetik, haien ama rola egokitasuna zalantza jarritz. Honen aurrean profesional gisa autokritika bat egin beharko genuke, emakumei erakunde desberdinetatik ematen zaien arretari dagokionez eta benetan genero ikuspegia aplikatzen dugun ikusi.

Pertsona, profesional, leku eta esparru desberdinetatik denbora luzez minimizatuta, epaituta eta isilduta sentitzen dira emakumeak eta horren ondorioz, ahulak eta txikiak bezala hauteman dute haien burua, haien erasotzaileen boterearen aurrean. Horren ondorioz, profesionalak ama gisa jarduteko ezintasuntzat har dezakete ahultasun hori.

Hain zuzen ere, gizarte langile garen aldetik, desberdintasun horiek aldatzea da gure lana, emakumei kontakizun koherente bat eraikitzen laguntzea, adingabeak ikusaraztea eta bien arteko harremanetarako espazio erresiliente eta seguruak sortzen laguntzea, non emakumea indartu ahal izango den, baita adingabeekiko interakzioaren bidez ere.

Espazio seguru eta erresilienteak sortzen laguntzeak erraztu egingo du emakumeek sendatze-prozesu bat egin dezaten, indarrak hartu eta ahalduzko daitezen, beren bizitzaren gidaritzat hartuz eta ama rola betetz.

Ondorioz, esan daiteke gizarte langile gisa gure erronka nagusia amatasunari dagokieneko praktika onak sustatzea izango dela, hau da, emakumeek behar duten erantzun integral bat ematea haien behar administratibo, emozional, fisiko eta ekonomikoei erantzunez, bide horien bitartez erraztuko baitiegu haien amatasunean erraztasunak izatea. Are gehiago, amatasunari zuzendutako esku-hartzea ezinbestekoa dela ondorioztatu da, izan ere, indarkeria jasan duten emakumeentzako lehentasuna den heinean, emakumeen arlo honi arreta berezia eman behar zaiola iruditzen zait.

Profesional gisa, birbiktimazioa ekidin, emakumeen erreferente izan eta ahalduzko prozesuan emakumeen zutabe nagusi izan behar garela uste dut. Eta horretarako, emakume hauentzako amatasunak norainoko garrantzia duen ulertu behar da, hau da, haien amatasunarekiko nola sentitzen diren eta zein lehentasun dituzten aztertzen.

Gainera, amatasunari zuzendutako programei dagokionez, genero ikuspegia kontuan hartzen duten amatasunari zuzendutako programak ezinbestekoak dira, amen eta seme-alaben arteko harremanei zuzendutako esku-hartzeen garrantzia azpimarratuz. Izan ere, gure testuinguruan ikuspegi hori kontuan hartzen duten zerbitzu edo programak izateak errealitatearekin bat datorren eta emakumeentzako baliagarria izango den laguntza eskaintzea beharrezkoa da.

Bukatzeko, artikulu honetan jaso diren ikerketa laneko testigantzak aztertu ostean, esan daiteke ezinbestekoa dela emakumeentzako indarkeriak amatasunean ekarri dituen eraginak aztertzea eta amatasunarekiko

ekarri dituen ondorioen aurrean garatu ditzaketen gaitasunetan laguntzea, ikuspegi hau kontuan hartu ezean eta alde hau aztertu gabe ezin delako emakumeei behar duten arreta eman. Ondorioz, emakume hauei haien egonkortasun emozionalean eta ama rolean laguntzeari bidez, indarkeria matxistaren

biktima diren adingabekoei ere onurak ekarriko dizkie, hauen erreferentziazko figura segurua indartzea lortuko baitugu, hauek behar duten babesa bermatuz eta hala, familia eremuan indarkeria matxistak ekarri dituen ondorioak gutxituz.

Amatasunaren eta indarkeria matxistaren arteko harreman dikotomikoa...

Aipatutako bibliografia

- AGUDELO, J. *et al.* (2016): "Ser mujer: entre la maternidad y la identidad", *Poiésis*, 31. zb., 306.-313. or., <<https://doi.org/10.21501/16920945.2121>>.
- ALONSO, I., eta FUNES, J. (2009): "El acompañamiento social en los recursos socioeducativos", *Educación Social*, 42. zb., 28.-46. or.
- BENALCÁZAR, L. eta DAMIÁN, P. (2020): "Estrategias de afrontamiento y redes de apoyo en mujeres víctimas de violencia" [master-tesia], Universidad Internacional SEK Ecuador, <<https://repositorio.uisek.edu.ec/handle/123456789/3763>>.
- BODELÓN, E. (2014): "Violencia institucional y violencia de género", *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 48. bol., 131.-155. or.
- BOLAÑOS, E. *et al.* (2018): "Impacto de la violencia de género en la salud de las mujeres de Castilla y León: un estudio cualitativo", *Comunidad*, 16. bol., 1. zb., <<https://comunidad.semfyec.es/article/impacto-de-la-violencia-de-genero-en-la-salud-de-las-mujeres-de-castilla-y-leon-un-estudio-cualitativo>>.
- COMBARRO, A. *et al.* (2014): "Mujeres víctimas de violencia de género: vivencias y demandas", *Zerbitzuan*, 56. zb., 87.-99. or., <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.56.06>>.
- CONTRERAS, J. *et al.* (2015): "Percepción del vínculo parental y violencia de género estudio sobre la percepción del vínculo materno-filial en familias que han sufrido situaciones de violencia de género", *Documentos de Trabajo Social*, 55. zb., 118.-143. or., <https://www.trabajosocialmalaga.org/wp-content/uploads/2019/04/55_6.pdf>.
- CUERVO, M. eta MARTÍNEZ, J. F. (2015): "Descripción y caracterización del ciclo de violencia que surge en la relación de pareja", *Tesis Psicológica*, 8. bol., 1. zb., 80.-88. or. <<https://www.redalyc.org/pdf/1390/139029198007.pdf>>.
- DEFAZ, S. R. (2016): *Violencia de género y estrategias de afrontamiento en mujeres de la población de Anchiliví* [master-tesia], Universidad Técnica de Ambato, <<https://repositorio.uta.edu.ec/jspui/handle/123456789/24193>>.
- EGEA, G. (2014): "Violencia filio-parental: de víctima a victimario", *Psicología desde el Caribe*, 31. bol., 3. zb., 7.-10. or., <http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0123-417X2014000300001>.
- FERNÁNDEZ-ÁLVAREZ, N. *et al.* (2022): "Resilience and associated factors in women survivors of intimate partner violence: a systematic review", *Anales de Psicología*, 38. bol., 1. zb., 177.-190. or., <<https://doi.org/10.6018/analesps.461631>>.
- HUANGAL, D. eta BRICEÑO, D. M. (2018): *Violencia conyugal e indefensión aprendida en madres de familia de una institución educativa Cajamarca 2017* [gradu-tesia], Universidad Privada Antonio Guillermo Urrelo, <https://alicia.concytec.gob.pe/vufind/Record/UPAG_4e9b4d144f67e9ee642477b3380a5c9b/>.
- IZAGUIRRE, A. eta CALVETE, E. (2014): "Intimate partner violence during pregnancy: women's narratives about their mothering experiences", *Psychosocial Intervention*, 23. bol., 3. zb., 209.-215. or., <<https://doi.org/10.1016/j.psi.2014.07.010>>.
- KELLY, U. A. (2009): "I'm a mother first: the influence of mothering in the decision-making processes of battered immigrant Latino women", *Research in Nursing & Health*, 32. bol., 3. zb., 286.-297. or., <<https://doi.org/10.1002/nur.20327>>.
- LAPADAT, C. E. (2021): *Super mamás. Un reto vital para madres que han sufrido violencia de género* [master-tesia], Universidad Jaume I, <<https://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/195224/>>.

- TFM_2021_Lapadat_Cristina%20Elena.pdf?sequence=1&isAllowed=y>.
- LAPIERRE, S. (2008): "Mothering in the context of domestic violence: the pervasiveness of a deficit model of mothering." *Child & Family Social Work*, 13. bol., 4. zb., 454-463. or., <<https://doi.org/10.1111/j.1365-2206.2008.00563.x>>.
- (2010): "Are abused women 'neglectful' mothers? A critical reflection based on women's experiences", in FEATHERSTONE, B.; HOOPER, C. A.; SCOURFIELD, J. eta TAYLOR, J. (ed.), *Gender and Child Welfare in Society*, Hoboken, Wiley, 121.-148. or., <<https://doi.org/10.1002/9780470684771.ch5>>.
- LEDESMA, L. (2022): *La violencia vicaria: una forma de violencia machista* [gradu-tesia], Universidad de La Laguna, <<http://riull.ull.es/xmlui/handle/915/28814>>.
- LIÉBANA, A. P. (2018): *Menores como víctimas de violencia de género. Medidas de protección: la suspensión de la patria potestad* [gradu-tesia], Universidad de Zaragoza, <<https://zaguan.unizar.es/record/77658>>.
- LIZANA, R. (2015): *Problemas psicológicos en niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja estudio de casos en madres y sus hijos e hijas que asisten a programas de ayuda especializada* [doktoretza-tesia], Universitat Autònoma de Barcelona, <<https://hdl.handle.net/10803/285393>>.
- ORJUELA, L. et al. (2008): *Manual d'atenció per a nens i nenes de dones víctimes de violència de gènere a l'àmbit familiar*, Madril, Save the Children España. <https://www.urv.cat/media/upload/arxius/igualtat/manual_nens_vm.pdf>.
- PELED, E., eta GIL, I. B. (2011): "The mothering perceptions of women abused by their partner", *Violence Against Women*, 17. bol., 4. zb., 457.-479. or., <<https://doi.org/10.1177/1077801211404676>>.
- PLAZA ALEU, M. (2007): "Les mares com a clau per a la intervenció amb els seus fills i filles" [aurkezpena], in Ajuntament L'Hospitalet (ed.), *II Jornades violència de gènere: noves visions per a noves realitats. L'Hospitalet, 15 de novembre de 2007*, Ajuntament L'Hospitalet, L'Hospitalet, 36.-43. or., <<https://www.l-h.cat/gdocs/d7085811.pdf>>.
- (2012): *Maternalització i violència masclista. Una anàlisi de de la perspectiva de gènere* [doktoretza-tesia], Universitat Autònoma de Barcelona, <<https://hdl.handle.net/10803/117543>>.
- PLAZA ALEU, M. eta CANTERA, L. M. (2015): "El impacto de la violencia de género en la maternidad: entrevistas en profundidad para reflexionar sobre las consecuencias y la intervención", *Journal of Feminist, Gender and Women Studies*, 15. zb., 85.-96. or., <<https://doi.org/10.15366/jfgws2015.1>>.
- RÍOS, P. (2014): *Intervención del trabajo social con mujeres maltratadas* [doktoretza-tesia], Universidad de Granada, <<https://hdl.handle.net/10481/33984>>.
- ROSELL, T. (2014): "Método y modalidades del trabajo social en grupo", *Revista de Treball Social*, 201. zb., 9.-22. or., <<https://www.revistarts.com/es/article/metodo-y-modalidades-del-trabajo-social-de-grupo>>.
- SEMAAN, I. et al. (2013): "Subjection, subjectivity, and agency: the power, meaning, and practice of mothering among women experiencing intimate partner abuse", *Violence Against Women*, 19. bol., 1. zb., 69.-88. or., <<https://doi.org/10.1177/1077801212475335>>.
- YUGUEROS, A. J. (2015): "Mujeres que han padecido malos tratos en las relaciones de pareja: el ciclo de la violencia", *Poiésis*, 30. zb., 13.-19. or., <<https://doi.org/10.21501/16920945.1854>>.